

# 14

## ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

---

### CIENCIA Y TECNOLOGÍA

**Catalina Gálvez Gálvez (\*)**  
**Ana González Flores (\*)**

---

(\*) **Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultateko irakasle titularra. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).**  
Profesora titular de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales. Universidad del País Vasco (UPV).

## ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
  2. MARCO REGULATORIO DE LA POLÍTICA DE I+D+i DE LA C.A. DE EUSKADI
  3. VISIÓN GLOBAL DE LAS ACTIVIDADES DE I+D+i EN LA C.A. DE EUSKADI
  4. ACTIVIDADES DE I+D+i EN LAS EMPRESAS
    - 4.1. Actividades de I+D del sector empresarial
    - 4.2. Actividad innovadora del tejido empresarial
    - 4.3. Actividades de I+D de los centros tecnológicos
  5. UNIVERSIDADES Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
  6. PANEL DE INDICADORES DE INNOVACIÓN. ÍNDICE EUROPEO DE INNOVACIÓN
  7. CONCLUSIONES
- BIBLIOGRAFÍA

## AURKIBIDEA

1. SARRERA
  2. I+G+b-REN POLITIKAREN ARAUZKO MARKOA EUSKAL AE-N
  3. I+G+b-KO JARDUEREI BURUZKO IKUSPEGI OROKORRA EUSKAL EA-N
  4. ENPRESEN I+G+b-KO JARDUERAK
    - 4.1. I+G jarduerak enpresa sektorean
    - 4.2. Enpresa sarearen jarduera berritzailea
    - 4.3. Zentro teknologikoen I+G jarduerak
  5. UNIBERTSITATEAK ETA HERRI ADMINISTRAZIOA
  6. BERRIKUNTZA ADIERAZLEEN PANELA. EUROPAKO BERRIKUNTZA ADIERAZLEA
  7. ONDORIOAK
- BIBLIOGRAFIA

## 1. INTRODUCCIÓN

Uno de los principales retos de la C.A. de Euskadi es convertirse en una economía competitiva basada en el conocimiento y la innovación. Está ampliamente aceptado que el desarrollo de una zona o país depende en gran proporción de sus avances en materia científica y tecnológica. Por tanto, la inversión destinada a I+D+i es uno de los factores claves que inciden en la competitividad y constituye uno de los pilares fundamentales para conseguir un crecimiento económico sostenible.

Para llevar a cabo este proceso, la C.A. de Euskadi cuenta con un conjunto de organizaciones y agentes institucionales y empresariales que conforman el sistema vasco de innovación. Estos agentes, que interactúan entre sí, participan directamente en los procesos de creación de conocimiento a través de la investigación científica y tecnológica; conocimientos sobre los que se soportan las innovaciones que impulsan el desarrollo económico.

En este capítulo se examinan las actividades de investigación e innovadoras desarrolladas por los principales agentes u organizaciones que componen el sistema de innovación de la C.A. de Euskadi en los últimos años. Por un lado, las empresas innovadoras, que son las que organizan la producción y la innovación. Por otro lado, las universidades y las estructuras de investigación dependientes de la Administración pública, dedicadas principalmente a la investigación científica y su difusión.

El análisis se basa fundamentalmente en la explotación de las estadísticas de actividades de I+D e innovación de Eustat, así como del Ine y de Eurostat. Estas estadísticas ofrecen datos de actividad innovadora comparables internacionalmente y temporalmente y, asimismo, son las que proporcionan información más completa sobre los principales agentes del sistema de innovación.

El capítulo comienza haciendo una breve revisión de la política científica, tecnológica y de innovación seguida por el Gobierno Vasco y la configuración actual del sistema vasco de innovación. A continuación, se muestra el panorama general del sistema de innovación de la C.A. de Euskadi, examinando sus recursos (económicos y humanos) y agentes desde una amplia perspectiva. Se realiza, asimismo, un estudio comparativo con el conjunto de España y de la UE-27. Vistos los indicadores agregados, se pasa a estudiar de una manera más pormenorizada la contribución de los distintos agentes innovadores. En primer lugar, las actividades de I+D+i que realizan las empresas, que constituyen el núcleo fundamental del sistema de innovación vasco, y dentro de éstas, la actividad de los centros tecnológicos, que estadísticamente se encuadran dentro del sector empresarial. En segundo lugar, se analiza la situación en el ámbito científico, esto es, las Universidades y organismos dependientes de la

## 1. SARRERA

Euskal AEko erronka nagusietariko bat da jakintzan eta berrikuntzan oinarri hartzen duten ekonomia lehiakor bihurtzea. Guztiz onartuta dago erregio edota herrialde baten garapena arlo zientifiko eta teknologikoan izan ditzakeen aurrerapenen arabera izango dela neurri handi batean. Horrenbestez, I+G+b-n egindako inbertsioa lehiakortasunari eragiten dion giltzarrietariko bat da eta hazkunde ekonomiko iraunkorra lortzeko funtsezko zutabeetariko bat dela esan behar da.

Prozesu hau aurrera eramanez ahal izateko, Euskal AEk berrikuntzako euskal sistema osatzen duten elkarten eta erakunde nahiz enpresa eragileen multzo bat dauka. Eragile horiek guztiek, elkarri eragiten diotenean, zuzen-zuzenean parte hartzen dute jakintza sortzeko prozesuetan ikerkuntza zientifiko eta teknologikoaren bitartez; jakintza horietan oinarri hartzen dute garapen ekonomikoa bultzatzen duten berrikuntzek.

Kapitulu honetan aztergai daude azken urteotan Euskal AERen berrikuntza sistema osatzen duten eragile edo erakunde nagusiek garatutako ikerkuntza jarduerak berritzaileak. Alde batetik, ekoizpena eta berrikuntza antolatzen duten enpresa berritzaileak. Beste aldetik, Herri Administrazioaren menpeko egiturak eta unibertsitateak, nagusiki ikerkuntza zientifikoan eta haren zabalkunde jarduten dutenak.

Azterlana gehienbat oinarritzen da Eustat, Ein eta Eurostateko I+G eta berrikuntzako jarduerari buruzko estatistiken ustiapenean. Estatistika horiek jarduerak berritzaileari buruzko datuak eskaintzen dituzte, nazioartean eta denbora tarte batzuen barruan aldera daitezkeenak, eta, aldi berean, horiek dira berrikuntza sistemaren eragile nagusien gaineko informaziorik osoena eskaintzen dutenak.

Kapitulua hasteko, berrikuspen labur bat egiten da Eusko Jaurlaritzak aurrera eramandako politika zientifiko, teknologiko eta berrikuntzakoari buruz, bai eta berrikuntzako euskal sistemaren gaur egungo osakerari buruz ere. Jarraian, Euskal AEko berrikuntza sistemaren ikuspegi orokorra erakusten da, haren baliabideak (ekonomikoak eta giza baliabideak) eta eragileak aztertuz, betiere perspektiba zabal batetik. Era berean, Espainiarekin eta EB-27rekin konparazio azterlan bat egiten da. Erantsitako adierazleak ikusi eta gero, zehatzago aztertzen da berrikuntza eragileen laguntza. Lehenik eta behin, enpresek egiten dituzten I+G+b jarduerak, horiek osatzen baitute berrikuntza euskal sistemaren funtsezko muina eta, horien barruan, zentro teknologikoen jarduerak, estatistikoki horien jarduerak enpresa sektorearen barruan sartzen baitira. Bigarrenik, eremu zientifikoaren egoera aztertzen da, hau da, unibertsitateak eta Herri Administrazioaren menpeko erakundeak. Euskal AEk berrikuntza jardueren gaitasunari eta

Administración pública. Con el fin de contextualizar la situación relativa de la C.A. de Euskadi con respecto al resto de Europa en términos de capacidad y desarrollo de actividades de innovación se presenta el Índice Europeo de Innovación, elaborado a partir de múltiples indicadores. Para finalizar, se presentan las principales conclusiones.

garapenari begira gainerako Europaren aldean duen egoera erlatiboa testuinguruan kokatu ahal izateko, Europako Berrikuntza Indizea azaltzen da askotariko adierazleetatik abiatuta. Amaitzeko, ondorio nagusiak aurkezten dira.

## 2. MARCO REGULATORIO DE LA POLÍTICA DE I+D+i DE LA C.A. DE EUSKADI

A comienzos de los años ochenta la economía vasca, fuertemente especializada en sectores tradicionales que giraban en torno al metal, se vio inmersa en una severa crisis. Se produce una situación de clara recesión que requería una urgente intervención. En un intento de mejorar las capacidades tecnológicas de los sectores industriales vascos, el Gobierno Vasco impulsó una activa política dirigida a reestructurar el sistema productivo y mejorar la competitividad. Se trataba de impulsar la innovación, el conocimiento y el desarrollo tecnológico de la Comunidad.

En esta primera etapa se apostó por el desarrollo de acciones dirigidas a fortalecer la *oferta tecnológica*. El Gobierno Vasco optó por impulsar una política tecnológica basada en el desarrollo de centros tecnológicos, que se encargarían de la captación y asimilación de conocimiento tecnológico con el objetivo de transferirlo posteriormente a las empresas, apoyando la modernización de la estructura productiva. Los centros tecnológicos tenían naturaleza privada, pero estaban fuertemente apoyados por la financiación pública, y se convirtieron en una pieza clave del sistema de innovación vasco y, en particular, de la infraestructura de apoyo a la innovación empresarial.

En los primeros años noventa se elabora el Plan de Estrategia Tecnológica, 1990-1992 (PET), que posteriormente es sustituido por el Plan de Tecnología Industrial 1993-1996 (PTI). Se inicia así una etapa en la que la política tecnológica se caracterizó por el impulso de la *demanda científico-tecnológica* por parte de las empresas. En estos planes se considera la innovación un proceso integral en el que priman las interacciones entre todos los agentes del sistema. De este modo se establecen líneas de apoyo destinadas a fomentar la cooperación tanto entre empresas como entre éstas y los centros tecnológicos (Olazarán y otros, 2009). Se desarrollan estrategias orientadas a fortalecer la I+D empresarial y se promueve un modelo interactivo de innovación mediante la creación de los clusters o agrupaciones empresariales. Frente al carácter más horizontal de los centros tecnológicos, que cubren un determinado número de áreas tecnológicas, las unidades empresariales responden a las necesidades específicas de una empresa o conjunto de empresas englobadas en un mismo sector, y que se agrupan para responder a sus necesidades tecnológicas. Los centros tecnológicos ya no eran, por tanto, el único objetivo y surgió una nueva tipología de actores (Rico-Castro, 2005). Los clusters y las políticas dirigidas a incentivar la creación de éstos tomaron el liderazgo en esta nueva política tecnológica orientada a satisfacer la demanda tecnológica de las empresas. No obstante, los centros tecnológicos continuaron siendo la piedra angular de la política vasca de innovación, aunque con un mayor equilibrio entre la capacidad de creación de conocimiento y la transferencia tecnológica.

El periodo 1997-2005 puede considerarse como de *política combinada de oferta y demanda*. Durante esta etapa se desarrolla el Plan de Ciencia y Tecnología 1997-2000 (PCT) y el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2001-2004 (PCTI). Como principal aportación plantean la integración del conjunto del sistema ciencia-tecnología-empresa y la consolidación internacional de la C.A. de Euskadi como un país científico y tecnológicamente innovador. Como consecuencia, las unidades independientes de I+D empresariales y de clus-

## 2. I+G+b-REN POLITIKAREN ARAUZKO MARKOA EUSKAL AE-N

Laurogeiko hamarkadaren hasieran, euskal ekonomia, metaltaren inguruan bilbatzen ziren sektore tradizionaletan espezializaturik egonik, krisialdi gogorrean murgildu zen. Atzeraldi garbiko egoera sortu zen, berehalako esku-hartzea behar zuena. Euskal industriaren sektoreen gaitasun teknologikoak hobetzeko ahaleginak eginda, Eusko Jaurilaritzak ekoizpen sistema berregituratzera eta lehiakortasuna hobetzera zuzendutako politika aktibo bat bultzatu zuen. Herrialdearen berrikuntza, jakintza eta garapen teknologikoa bultzatzea zen xedea.

Aurreneko etapa honetan *eskaintza teknologikoa* sendotzera bideratutako ekintzen garapenaren alde egin zen. Eusko Jaurilaritzak zentro teknologikoen garapenean oinarritutako politika teknologikoa bultzatu zuen; zentro horien erantzukizuna zen jakintza teknologikoa eskuratzea eta barneratzea, geroago enpresei helarazteko eta, horrela, ekoizpen egituraren modernizazioari laguntzeko asmoarekin. Zentro teknologikoei izaera pribatua zeukaten, baina finantzazio publiko gogor batek babesten zituen; gauzak horrela, euskal berrikuntza sistemaren funtsezko zati bihurtu ziren, bereziki enpresa berrikuntzari laguntzeko azpiegituraren oinarritzako atal.

Laurogeita hamarreko hamarkadako aurreneko urteetan, 1990-1992an, Estrategia Teknologikoari buruzko Plangintza (ETP) prestatu zen eta ondoren, 1993-1996an, Industri Teknologiar buruzko Plangintzarekin ordeztu zen (ITP). Hartara, politika teknologikoaren ezaugarria izan zen enpresek eskari zientifiko-teknologikoari emandako bultzada. Plangintza horietan berrikuntza prozesu integraltzat hartzen zen eta sistemaren eragile guztien arteko interakzioak lehenesten ziren. Gauzak horrela, enpresen arteko eta enpresen nahiz zentro teknologikoen arteko lankidetzak sustatzera bideratutako laguntza ildoak ezarri ziren (Olazarán eta beste batzuk, 2009). Enpresen I+G sendotzera zuzendutako estrategiak garatu ziren eta berrikuntzaren eredu interaktiboa bultzatu zen, klusterak edo enpresa elkarteak sortuz. Eremu teknologikoen kopuru zehatza hartzen duten zentro teknologikoen izaera horizontalagoaren aldean, enpresa unitateek enpresa baten premia zehatzei erantzuten zieten edo premia teknologikoei erantzuteko sektore berean bildutako enpresa multzo baten beharrezane. Beraz, ordurako zentro teknologikoak ez ziren helburu bakarra eta aktoreen tipologia berria sortu zen (Rico-Castro, 2005). Klusterrek eta horien sorkuntza pizten laguntzeko politikak lidergoa hartu zuten enpresen eskari teknologikoa asebetetzera bideratutako politika teknologiko berri horretan. Hala eta guztiz ere, zentro teknologikoei berrikuntzako euskal politikaren muina izaten jarraitu zuten, baina betiere jakintza sortzeko gaitasunaren eta transferentzia teknologikoaren arteko oreka gehiagorekin.

1997-2005eko epean *eskaria eta eskaintza lotzen zituen* politika egin zen. Denbora tarte honetan Zientzia eta Teknologiarren Plangintza (ZTP) garatu zen (1997-2004) eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Plangintza (ZTBP) (2001-2004). Ekarpene nagusi gisa, zientzia, teknologia eta enpresaren sistema batera integratzea planteatu zuten eta Euskal AE nazioartean egonkortzea zientzia eta teknologiaren aldetik berritzailea izango zen sistema baten gisa. Ondorio bezala, honako hauek guztiak SARETEK izeneko elkarte batean bildu

ters intersectoriales, los nuevos centros de investigación, los laboratorios de ensayo y validación, los centros tecnológicos sectoriales y las universidades fueron agrupados en una asociación común denominada SARETEK (en la actualidad se denomina Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, RVCTI).

Se pasa de un estadio en el que el avance tecnológico tiene lugar mayoritariamente mediante la transferencia de tecnología y la asimilación de los nuevos conocimientos desarrollados en el exterior, a un estadio en que la ventaja competitiva descansa, fundamentalmente, en la generación de nuevo conocimiento. En dicha fase no basta, por tanto, con el desarrollo de actividades de I+D que tengan como principal objetivo la captación y asimilación de los avances tecnológicos, sino que resulta necesario desarrollar una investigación de vanguardia entroncada en redes de excelencia (Navarro y Buesa, 2003). Con ese objetivo se crean dos nuevas infraestructuras de investigación: los Centros de Investigación Cooperativa (CICs) y los Centros de investigación Básica y de Excelencia (BERC), que junto a las universidades constituyen los pilares sobre los que descansa la política científica.

Los Centros de Investigación Cooperativa (CICs) fueron creados con la misión de desarrollar una investigación selectiva en campos considerados estratégicos para la Comunidad. Están integrados por universidades, empresas y otros agentes de la oferta científico-tecnológica. Con el impulso de los CICs se pretende crear instituciones de investigación estratégica que permitan elevar la competitividad de los sectores existentes con productos de mayor valor añadido, la diversificación hacia nuevas industrias intensivas en conocimiento y el avance en la internacionalización del sistema. Los Centros de Investigación Básica y de Excelencia (BERC) son centros de investigación científica que giran en torno a un grupo de investigación de excelencia de referencia internacional. El objetivo es posicionar al sistema de innovación vasco en las redes de investigación contribuyendo a mejorar el atractivo y la visibilidad internacional.

El Plan de Competitividad Empresarial e Innovación Social 2006-2009 junto con el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2010 marcaron el inicio de una tercera etapa caracterizada por el establecimiento de una *política orientada a resultados*, con el impulso de un nuevo modelo competitivo en el que la innovación constituye el eje central. Como novedad, se promueve la diversificación del tejido productivo hacia nuevos sectores y áreas tecnológicas; sectores de base científica e intensivos en conocimiento como la biotecnología, la nanotecnología o la microenergía. Asimismo, se fomenta la consecución de resultados tangibles en términos de ciencia, tecnología e innovación mediante la participación de los agentes vascos de innovación en los programas europeos e internacionales, patentes, etc. Se trata de un plan enfocado a abordar la «segunda transformación económica vasca», caracterizada por encarar el reto de la innovación, la calidad y la creación de conocimiento. Es un plan ambicioso diseñado para situar la ciencia y la tecnología en el punto central de la estrategia de competitividad de la C.A. de Euskadi en un mundo globalizado (PCTI, 2010).

Con el objetivo de fomentar el trabajo en red y la gobernanza del sistema de innovación se crearon organizaciones como la Agencia Vasca de Innovación (Innobasque) y la Fundación Vasca de Ciencia (Ikerbasque), creadas ambas en 2007. Innobasque es un instrumento de gestión creado con el objetivo de coordinar el sistema vasco de innovación y liderar la

ziren: enpresen eta sektorearteko klusterren I+Geko unitate independenteak, ikerkuntza zentro berriak, entsegu eta balioztatze laborategiak, sektore zehatz bateko zentro teknologikoak eta unibertsitateak. Gaur egun elkarte horri Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea irizten zaio (ZTBES).

Horrenbestez, beste eszenatoki batera pasatzen gara, hau da, aurrerapen teknologikoa teknologiaren eskualdaketaren bidez eta kanpoan garatutako jakintza berriak barneratzearen bidez gauzatzen den eszenatoki batetik lehiakortasunaren abantaila jakintza berria sortzeko zereginean oinarritzen den beste eszenatoki batera. Fase horretan, beraz, ez zen nahikoa aurrerapen teknologikoak jasotzea eta barneratzea helburu zuten I+Gko jarduerak garatzearekin; izan ere, behar-beharrezkoa zen abangoardiako ikerkuntza bat garatzea bikaintasun sareei lotuta (Navarro eta Buesa, 2003). Helburu horri begira ikerkuntzarako bi azpiegitura berri sortu ziren: Ikerkuntza Kooperatiboaren Zentroak (IKZ) eta Bikaintasunaren eta Oinarritzko Ikerkuntzaren Zentroak (BOIZ), unibertsitateekin batera politika zientifikoa aurrera eramateko zutabe bihurtu zirenak.

Ikerkuntza Kooperatiboaren Zentroak (IKZ) ikerkuntza selektiboa garatzeko helburuarekin sortu ziren erregioarentzat estrategikotzat hartzen ziren eremuetan. Zentro horiek unibertsitateek, enpresek eta eskaintza zientifiko eta teknologikoaren beste agente batzuek osatu zituzten. IKZen bultzadarekin ikerkuntza estrategikorako erakundeak sortzeko asmoa zegoen, sektoreen lehiakortasuna handitzeko balio erantsi handiagoko produktuen bitartez; era berean, jakintzan intentsiboak izango ziren industria berriak eratu nahi ziren eta sistemaren internazionalizazioan aurrera egin. Bikaintasunaren eta Oinarritzko Ikerkuntzaren Zentroak (BOIZ) nazioarteko erreferentziako bikaintasunaren ikerketa talde baten inguruan eratutako ikerkuntza zientifikoko zentroak dira. Xedea da berrikuntzaren euskal sistema ikerkuntza sareetan kokatzea nazioartean daukagun erakargarritasuna eta ikusgaitasuna hobetzen laguntzeko.

2006-2009ko Enpresa Lehiakortasunaren eta Gizarte Berrikuntzaren Plangintza eta 2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Plangintzarekin batera hirugarren etapa hasi zen; etapa honetan *politika emaitzak lortzera* zuzendurik zegoen eta horretarako lehiakortasunerako eredu berria bultzatu nahi zen, erdiko ardatzean berrikuntza jarriz. Berritasun modura, ekoizpen sarearen dibertsifikazioa sustatu zen sektore eta eremu teknologiko berrietarantz; oinarri zientifikoko sektoreak, jakintzan intentsiboak direnak, esate baterako bioteknologia, nanoteknologia eta mikroenergia. Halaber, zientzia, teknologia eta berrikuntzari begirako emaitza hautemangarriak lortzea bultzatu zen, berrikuntzaren euskal eragileek Europako eta nazioarteko programetan, patenteetan eta abarretan parte hartzearen bitartez. «Euskal ekonomiaren bigarren transformazioari» heltzeko plangintza bat zen eta haren ezaugarria berrikuntzaren, kalitatearen eta jakintza sorkuntzaren erronkari aurre egitea. Plangintza handizalea zen, mundu globalizatu batean zientzia eta teknologia Euskal AERen lehiakortasunari buruzko estrategiaren erdiko puntuan kokatzeko diseinatutakoa (ZTBP, 2010).

Sareko lana eta berrikuntza sistemaren gobernantza sustatzeko asmoz, Berrikuntzaren Euskal Agentzia (Innobasque) eta Zientziaren Euskal Fundazioa (Ikerbasque) eratu ziren, biak 2007an. Innobasque kudeaketa tresna bat da berrikuntzaren euskal sistema koordinatzeko eta zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren politikaren liderra izateko helburua-

nueva política de ciencia, tecnología e innovación. Aglutina a los agentes de la RVCTI, las empresas privadas, las instituciones públicas vascas, los representantes oficiales de los empresarios y de los trabajadores, y todo tipo de organizaciones implicadas en la innovación. La creación de Innobasque pone de relieve la creciente atención que el gobierno autonómico está prestando a las oportunidades de transferencia de conocimiento a las Pymes (Olazaran et al., 2009). La fundación Ikerbasque es la agencia encargada de atraer a investigadores de reconocido prestigio para que lideren o participen en proyectos de investigación desarrollados en, o en colaboración con algún agente de la RVCTI. Se trata de impulsar la excelencia en la investigación y el desarrollo de la carrera investigadora en la C.A. de Euskadi, los dos ejes que vertebran la política científica vasca (PCTI 2010).

El sistema de innovación vasco se caracteriza por la importante red de centros tecnológicos que posee, que se encuentran entre los mejores de España y tienen un alcance internacional, algunos de ellos muy potentes y diversificados. Dentro de sus actuaciones orientadas a fortalecer a estos agentes, desde el Gobierno Vasco se han promovido procesos de consolidación y agrupamiento, concentrando los principales centros tecnológicos en dos redes, Tecnalia e IK-4.

El último plan desarrollado es el Plan de Competitividad Empresarial 2010-13, que continuando con la misión de planes anteriores, se plantea como objetivo impulsar la capacidad innovadora de las empresas y favorecer las interrelaciones sectoriales, tecnológicas e institucionales para mejorar la competitividad de las empresas. Aspira a sentar las bases para la transformación del sistema productivo en un nuevo modelo basado en la creación de valor, la diferenciación y el conocimiento.

rekin sortutakoa. Agentzia horrek ZTBESren agenteak, enpresa pribatuak, euskal erakunde publikoak, enpresaburuak eta langileen ordezkari ofizialak eta berrikuntzan inplikaturiko era guztietako erakundeak biltzen ditu. Innobasque-ren sorkuntzak ageri-agerian jartzen du gero eta handiagoa dela gobernu autonomikoak enpresa txiki eta ertainei (ETEak) jakintza transferitzeko aukeretan ipintzen duen arreta (Olazaran et al., 2009). Ikerbasque fundazioa izen handiko ikerlariak erakartzeko ardura duen agentzia da, eta helburua da horiek ZTBESko agentzeren batekin lankidetzan edo bertan garatutako ikerkuntza proiekturen bateko lidergoa hartzea edota egitasmoren batean esku hartzea. Asmoa da ikerkuntzako bikaintasuna eta Euskal AEko ikerketa karreraren garapena bultzatzea (ZTBP, 2010).

Berrikuntzako euskal sistemaren ezaugarrietariko bat da horren barruan dauden zentro teknologikoen sare garrantzitsua. Zentrook Espainiako estatu barruan dauden onenetarikoak dira eta nazioarteko oihartzuna dute; gainera, batzuk oso sendoak dira eta dibertsifikaturik daude. Agente horiek indartzera zuzendutako jarduketan barruan, Eusko Jaurlaritzak egonkortze eta multzokatze prozesuak sustatu dira, zentro teknologiko nagusiak bi sareetan bilduz (Tecnalia eta IK-4).

Garatutako azken plangintza Enpresa Lehiakortasunaren 2010-13 Plangintza da, eta aurreko plangintzen misioari jarraitzen dio, hau da, helburutzat hartzen du enpresen berrikuntza gaitasuna bultzatzea eta sektoreen arteko erlazio teknologiko eta instituzionalak aldezte, enpresen lehiakortasuna hobetze aldera. Ekoizpen sistema eraldatzeko oinarriak finkatu nahi ditu, balioaren, desberdintasunaren eta jakintzaren balioan oinarri hartzen duen eredu berri bat sortzeko.

### 3. VISIÓN GLOBAL DE LAS ACTIVIDADES DE I+D+i EN LA C.A. DE EUSKADI

Los datos procedentes de la Estadística sobre Actividades de Investigación Científica y Desarrollo Tecnológico, elaborada por Eustat, indican que el aumento de los recursos financieros y humanos dedicados a la investigación en la última década ha sido continuo. La tabla 1 muestra que en 2009 la C.A. de Euskadi invirtió en actividades de I+D un total de 1.280,9 millones de euros, lo que supone un aumento del 55,6% respecto al año 2005, y más del doble con respecto al año 2000. Por su parte, el esfuerzo investigador, definido como el gasto en I+D como porcentaje del PIB, también ha mostrado una importante progresión, especialmente en los últimos años. Según Eustat, en 2009 los gastos de I+D representan el 1,98% del PIB, frente al 1,44% en 2005 y el 1,43% en el año 2000. Este esfuerzo en I+D es superior a la media de España, pero se encuentra por debajo de los valores de la UE-27.

En comparación con los países europeos, la C.A. de Euskadi se encuentra en una posición media-alta, con un gasto en I+D como porcentaje del PIB tan sólo superado por países como Francia (2,21%), Austria (2,75%), Alemania (2,82%) y los países escandinavos, con Finlandia a la cabeza (3,9%). El gráfico 1 muestra la evolución del esfuerzo inversor de algunos países.

El gasto en I+D por habitante también muestra una tendencia ascendente. En 2009 la C.A. de Euskadi invirtió en actividades de I+D 586,8 euros por habitante, casi el doble del gasto registrado en España y superando en 113 euros al de la UE-27.

### 3. I+G+b-KO JARDUEREI BURUZKO IKUSPEGI OROKORRA EUSKAL EA-N

Eustatek ikerkuntza zientifikoaren eta garapen teknologikoaren jardueri buruz egindako estatistikatik ateratako datuek adierazten dute ikerkuntzara zuzendutako finantza eta giza baliabideen hazkundea etengabea izan dela azken hamarkadan. Gauzak horrela, 1. taulak erakusten du 2009an Euskal AEk 1.280,9 milioi euro inbertituko zituela I+G jardueretan, hau da, hazkundea % 55,6koa izan da 2005eko gastuarekin alderatuz gero, eta bikoitza baino gehiago igo da 2000koarekin erkatuz gero. Beste alde batetik, ikerkuntza ahalegina, hau da, I+G-ko gastua BPGren kopuru gisa definituta, nabarmen handitu da, bereziki azken urteotan. Eustaten datuei jarraituz, 2009an I+G-ko gastuak BPGren % 1,98 izan ziren; aitzitik, 2005ean % 1,44 baino ez eta 2000an % 1,43. Beraz, I+G-ko ahalegin hori Espainiakoaren batez bestekoa baino handiagoa da, baina, hala eta guztiz ere, EB-27ko balioen azpian dago.

Europako herrialdeekin alderatuta, Euskal AE toki ertain-altuan dago; izan ere, BPGren kopuru gisa duen I+G-ko gastua bakar-bakarrik gainditzen dute honako herrialde hauek: Frantziak (% 2,21), Austriak (% 2,75), Alemaniak (% 2,82) eta herrialde eskandinaviarrek, Finlandia buru dela (% 3,9). Hala, 1. grafikoak inbertsio ahaleginaren bilakaera erakusten du zenbait herrialdetan.

Biztanle bakoitzeko I+G-n egiten den gastuak ere goranzko joera izan du. 2009an Euskal AEk 586,8 euro inbertitu zituen biztanle bakoitzeko I+G jardueretan, Espainian izandako gastuaren bikoitza eta EB-27ko gastua 113 euroan gaindituz.

Evolución del gasto en actividades de I+D

1


Gastuaren bilakaera I+G jardueretan I+D

	2000	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Euskal AE / C.A. de Euskadi</b>						
<b>Guztira (mila eurotan)</b> Total (miles de euros)	594.115	823.459	907.721	1.090.265	1.263.877	1.280.917
<b>Biztanle bakoitzeko (euro)</b> Per cápita (euros)	285,7	385,7	428,5	512,2	584,6	586,8
<b>BPGren gainean (%) / Sobre P.I.B. (%)</b>	1,43	1,44	1,47	1,65	1,86	1,98
<b>Espainia / España</b>	1,16	1,48	1,58	1,87	1,98	2,06
<b>Guztira (milioi eurotan)</b> Total (millones de euros)						
<b>Biztanle bakoitzeko (euro)</b> Per cápita (euros)	5.718,9	10.196,9	11.815,2	13.342,4	14.701,4	14.581,7
<b>BPGren gainean (%) / Sobre P.I.B. (%)</b>	142,8	236,9	270,0	300,0	324,7	318,2
<b>EB-27 / UE-27</b>	0,91	1,12	1,20	1,27	1,35	1,38
<b>Guztira (milioi eurotan)</b> Total (millones de euros)	171.231,5	201.904,9	216.266,4	229.233,6	239.702,2	236.820,3
<b>Biztanle bakoitzeko (euro)</b> Per cápita (euros)	354,7	411,1	438,7	462,8	481,6	473,9
<b>BPGren gainean (%) / Sobre P.I.B. (%)</b>	1,86	1,82	1,85	1,85	1,92	2,01

Iturria: Eustat, Ein eta Eurostat.

Fuente: Eustat, Ine y Eurostat.





Iturria: Eustat, Ein eta Eurostat. Geuk egina.  
Fuente: Eustat, Ine y Eurostat. Elaboración propia.

La estructura de gasto en I+D por parte de los principales agentes del sistema (empresas, administración pública y universidad) pone de manifiesto el importante papel desempeñado por el sector empresarial, lo que indica un fuerte compromiso del sector privado con la innovación; no obstante, en los últimos años el sector empresarial ha reducido su importancia relativa a favor de la Universidad y la Administración pública. La tabla 2 muestra que en la C.A. de Euskadi, las empresas ejecutaron en 2009 el 76,3% del gasto total en actividades de I+D. Les sigue, si bien a mucha distancia, la Universidad con el 18% y, con apenas el 5,7%, la Administración pública. Por tanto, se puede afirmar que la C.A. de Euskadi destaca por su fortaleza en el sector empresas y su debilidad en universidades y, sobre todo, en los organismos públicos de investigación, limitados a unos pocos centros de ciencias agrarias, energía y sanitarios. La participación de las empresas en la C.A. de Euskadi es muy superior a la registrada en la UE-27 (62,4%), ampliándose aún más las diferencias con respecto a España (52,1%). Por el contrario, en España y la UE-27 es mayor que en la C.A. de Euskadi el peso de la Universidad y, especialmente, de la Administración pública. No obstante, debe hacerse notar que la existencia en la C.A. de Euskadi de una amplia red de centros tecnológicos hace que las comparaciones precedentes deban ser matizadas. Estos centros se contabilizan dentro del sector empresas, desempeñando en parte el papel que en otras áreas geográficas (como España y los países comunitarios) desempeñan los organismos públicos de innovación y las universidades (Navarro y Buesa, 2003).

Sistemaren eragile edo agente nagusiek (enpresak, herri administrazioa eta unibertsitatea) I+G-n egiten duten gastuaren egiturak agerian jartzen du zein garrantzitsua izan den enpresa sektoreak bete duen zeregina; horrek sektore pribatuak berrikuntzan izan duen konpromiso sendoa erakusten du; nolahi ere den, azken urteotan enpresa sektoreak bere garrantzi erlatibo txikitu du unibertsitatearen eta herri administrazioaren aldean. Hala, 2. taulak erakusten du Euskal AEko enpresek 2009an I+G jardueren gastu guztiaren % 76,3 egin zutela. Jarraian, nahiz eta urrun ibili, unibertsitatea dago % 18ekin eta ondoren, herri administrazioa, % 5,7ekin baino ez. Horrenbestez, baiezta daiteke Euskal AE nabarmen tzen dela enpresen sektorean daukan sendotasunagatik eta unibertsitatean eta, bereziki, ikerkuntzako erakunde publikoetan duen ahuleziagatik, azken esparruko zentroak bakan batzuk besterik ez direlako nekazaritza, energia eta osasun zientzietan. Euskal AEko enpresen partaidetza EB-21koena (% 62,4) baino askoz handiagoa da eta aldea are handiagoa da Espainiarekin alderatuz gero (% 52,1). Aitzitik, bai Espainian bai EB-27n handiagoa da unibertsitatearen pisua eta, bereziki, herri administrazioarena. Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago, Euskal AEn zentro teknologikoen sare zabala dagoenez gero, horrek eragiten duela aurreko alderaketetan ñabardurak egiteko beharra. Izan ere, zentro horiek enpresen sektorearen barruan zenbatzen dira, baina beste eremu geografiko batzuetan (esate baterako Espainian eta batasuneko herrialdeetan) zeregin hori berrikuntzako erakunde publikoek eta unibertsitateek betetzen dute (Navarro eta Buesa, 2003).

	2000	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Euskal AE / C.A. de Euskadi</b>						
<b>Enpresak(*) / Empresas(*)</b>	80,5	78,6	78,4	80,1	79,6	76,3
<b>Herri adm. / Adm. Pública</b>	2,4	3,8	3,7	3,9	4,8	5,7
<b>Goi irakaskuntza / Enseñanza Superior</b>	17,1	17,6	17,9	16,0	15,7	18,0
<b>Espainia / España</b>						
<b>Enpresak / Empresas</b>	54,6	53,9	55,7	56,0	55,1	52,1
<b>Herri adm. / Adm. Pública</b>	15,8	17,0	16,7	17,6	18,2	20,1
<b>Goi irakaskuntza / Enseñanza Superior</b>	29,6	29,0	27,6	26,4	26,7	27,8
<b>EB-27 / UE-27</b>						
<b>Enpresak / Empresas</b>	64,9	63,3	63,9	64,0	63,6	62,4
<b>Herri adm. / Adm. Pública</b>	14,2	14,1	13,7	13,4	13,2	13,7
<b>Goi irakaskuntza / Enseñanza Superior</b>	20,9	22,6	22,4	22,6	23,3	23,9

(\*) **Enpresen sektorearen barruan irabazasmorik gabeko erakunde pribatuak sartzen dira.**

El sector de empresas incluye las instituciones privadas sin fines de lucro (IPSFL).

**Iturria: Eustat, Ein eta Eurostat. Geuk egina.**

Fuente: Eustat, Ine y Eurostat. Elaboración propia.

Por lo que se refiere a las fuentes de financiación de las actividades de I+D, el análisis de los datos de la tabla 3 revela que en todos los países la principal fuente de procedencia de los recursos son las empresas, si bien han retrocedido notablemente respecto a años anteriores. En la C.A. de Euskadi, en 2009 el sector empresarial aportó el 54% de los recursos, mientras que en el año 2005 procedían de las empresas casi el 61% de los fondos, y el 69% en el año 2000. No obstante, el porcentaje de fondos procedentes de las empresas es superior al de España y al de la UE-27. La segunda fuente de financiación es la Administración Pública. De esta fuente proceden el 40% de los fondos de la C.A. de Euskadi, cifra inferior a la registrada en España pero superior a la de la UE-27. Los fondos residuales proceden de la enseñanza superior, el extranjero y las instituciones privadas sin fines de lucro (IPSFL), cuya importancia relativa varía en las tres áreas analizadas.

I+G jardueren finantzazio iturriei dagokienez, 3. taulako datuen azterketak erakusten du herrialde guztietan baliabideen sorburuaren iturri nagusia enpresak direla, aurreko urteen aldean kopuruak jaitsi diren arren. Gauzak horrela, Euskal AEn, 2009an, enpresa sektoreak baliabideen % 54 jarri zuen; hala eta guztiz ere, 2005. urtean fondoak ia % 61 enpresetatik zetorren eta 2000. urtean % 69. Kontuak kontu, enpresetatik datozen fondoak Espainiako enpresetatik eta EB-27koetatik datozen fondoak baino handiagoak da. Bigarren finantzazio iturria herri administrazioa da. Iturri horretatik Euskal AEko fondoak % 40 dator; kopuru hori Espainian dagoena baino txikiagoa da, baina EB-27koa baino handiagoa. Hondakin fondoak goi irakaskuntzatik, atzerriatik eta irabazasmorik gabeko erakunde pribatuetatik (IGEP); horien garrantzi erlatiboa aldatzen da aztertutako hiru arloen arabera.

	2000	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Euskal AE / C.A. de Euskadi</b>						
Herri adm. / Adm. Pública	27,4	32,4	35,4	37,5	40,2	40,0
Goi irakaskuntza / Enseñanza Superior	0,0	3,1	3,4	2,2	2,1	2,5
Enpresak / Empresas	69,0	60,7	57,8	56,8	54,0	54,0
IGEP / IPSFL	0,4	0,3	0,3	0,3	0,4	0,5
Atzerria / Extranjero	3,2	3,5	3,1	3,2	3,3	3,0
<b>España / España</b>						
Herri adm. / Adm. Pública	38,6	43,0	42,5	43,7	45,6	
Goi irakaskuntza / Enseñanza Superior	4,7	4,1	3,9	3,3	3,2	
Enpresak / Empresas	49,7	46,3	47,1	46,0	45,0	
IGEP / IPSFL	2,0	0,9	0,6	0,5	0,6	
Atzerria / Extranjero	4,9	5,7	6	7,0	5,7	
<b>EB-27 / UE-27</b>						
Herri adm. / Adm. Pública	34,1	34,4	33,5	33,3	33,9	
Goi irakaskuntza / Enseñanza Superior	0,6	0,8	0,9	0,9	0,9	
Enpresak / Empresas	56,4	54,1	55	55,0	54,7	
IGEP / IPSFL	7,0	9,0	8,8	9,1	8,7	
Atzerria / Extranjero	1,6	1,6	1,7	1,7	1,7	

Iturria: Eustat, EIN eta EUROSTAT. Geuk egina.

Fuente: Eustat, INE y EUROSTAT. Elaboración propia.

La tabla 4 muestra el gasto en I+D realizado en la C.A. de Euskadi diferenciando las disciplinas científicas. El campo de la ingeniería y tecnología es el que concentra la mayoría de los recursos destinados a investigación, casi el 70% en 2009, habiendo disminuido su peso relativo respecto a años anteriores. Muy lejos de esta cifra quedan los recursos asignados a las demás disciplinas. Las ciencias exactas y naturales y las ciencias médicas (incluida farmacia) suponen en torno al 10% del gasto total. Por su parte las ciencias sociales y humanidades, que es la disciplina en que más ha aumentado el gasto en I+D en el período 2005-2009, realizan el 6,2% del gasto total, correspondiendo el otro 3,4 % a las ciencias agrarias (incluida ganadería, silvicultura y pesca).

4. taulak erakusten du Euskal AEn egindako I+G-ko gastua, baina diziplina zientifikoak bereiziz. Ingeniaritza eta teknologiaren arloa da ikerkuntzara zuzendutako baliabiderik gehienak hartzen dituen, 2009an ia-ia % 70, nahiz eta haren pisu erlatiboa jaitsi aurreko urteetako datuen aldean. Kopuru horretatik oso urruti, gainerako diziplinetan erabiltzen diren baliabideak daude. Gauzak horrela, zientzia zehatz eta naturalek eta zientzia medikoek (farmazia barne) gastu osoaren % 10 hartzen dute. Beste alde batetik, 2005-2010eko epean I+G-ko gastuan gehien handitu den diziplina izan arren, gizarte zientziek eta giza zientziek gastu osoaren % 6,2 egin zuten; gainerako % 3,4a nekazaritza zientziei egokitu zitzaizen (horren barruan, abeltzaintza, basogintza eta arrantza sarturik).

Gasto interno en I+D por disciplina científica en la C.A. de Euskadi (%)

	2000	2005	2006	2007	2008	2009
Zientzia zehatz eta naturalak / CC. exactas/naturales	10,3	8,9	12,0	9,4	11,9	10,7
Ingeniaritza eta teknologia / Ingeniería y tecnología	75,9	75,4	73,6	72,2	71,7	69,7
Zientzia medikoak / CC. médicas	5,3	8,0	7,7	10,5	8,1	10,0
Nekazaritza zientziak / CC. agrarias	3,1	3,6	1,6	3,7	3,4	3,4
Gizarte eta giza zientziak / CC. sociales/humanidades	5,3	4,1	5,1	4,2	5,0	6,2

Iturria: Eustat. Ikerkuntza zientifikoaren eta garapen teknologikoaren jardueri buruzko estatistika. Geuk egina.

Fuente: Eustat. Estadística sobre Actividades de Investigación Científica y Desarrollo Tecnológico. Elaboración propia.

Otro indicador básico de la capacidad innovadora es el número de personas dedicadas a realizar actividades de I+D. Los datos de la tabla 5 indican que el personal empleado en actividades de I+D en equivalencia a dedicación plena (E.D.P.) ha aumentado de manera significativa a lo largo de la década. En 2009 en la C.A. de Euskadi se dedicaban a estas actividades 16.690 personas, lo que supone un incremento del 33,5% respecto a 2005 y del 83,6% respecto al año 2000. Como consecuencia, las personas ocupadas en estas actividades expresadas en tanto por mil del empleo total han pasado de suponer el 13‰ en 2005 al 17‰ en 2009. En este sentido, la posición relativa de la C.A. de Euskadi es claramente positiva, presentando valores superiores no sólo a los de España sino también a los de la UE-27.

Berrikuntza gaitasunaren oinarrizko beste adierazle bat da I+G jardueretan jarduten duten pertsonen kopurua. Hala, 5. taulako datuek adierazten dute I+G jardueretan arduraldi oso-ko baliokidetzan (AOB) erabiltzen diren langileak nabarmen handitu direla hamarkadan zehar. 2009an Euskal AEn 16.690 pertsona aritzen ziren jarduera mota horietan; horrek esan nahi du hazkundea % 33,5ekoa izan dela 2005eko datuen aldean eta % 83,6 2000ko datuen aldean. Horren ondorioz, jarduera horietan lan egiten duten pertsonak enplegu osoaren milakoetan adierazita 2005ean izandako ‰ 13tik 2009an izandako ‰ 17ra igaro da. Alde horretatik, Euskal AERen kokapen erlatiboak guztiz positiboak da, balioak Espainiarenak eta EB-27renak baino handiagoak direlako.

Evolución del personal (EDP) empleado en actividades de I+D

5

I+G jardueretan aritzen diren langileen bilakaera (AOB)

	2000	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Euskal AE / C.A. de Euskadi</b>						
<b>Langileak (AOB) / Personal (EDP)</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>9.092</b>	<b>12.506</b>	<b>13.065</b>	<b>14.435</b>	<b>15.373</b>	<b>16.690</b>
<b>Lanean ari direnen gainean (‰)</b> Sobre personal ocupado (‰)	10,7	13,0	13,2	14,2	15,0	17,0
<b>Emakumezkoen (%) / Mujeres (%)</b>	26,6	31,7	32,0	33,0	33,4	34,0
<b>Ikerlariak / Personal investigador (EDP)</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>5.494,0</b>	<b>7.819,7</b>	<b>8.145,0</b>	<b>9.220,4</b>	<b>9.640,1</b>	<b>10.386,2</b>
<b>I+G-ko langileen gainean (%)</b> Sobre personal I+D (%)	60,4	62,5	62,3	63,9	62,7	62,2
<b>Lanean ari direnen gainean (‰)</b> Sobre personal ocupado (‰)	6,5	8,1	8,3	9,1	9,4	10,6
<b>Emakumezkoen % / Mujeres (%)</b>	28,6	34,2	34,0	34,0	34,3	35,2
<b>Espainia / España</b>						
<b>Langileak (AOB) / Personal (EDP)</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>120.618</b>	<b>174.773</b>	<b>188.978</b>	<b>201.108</b>	<b>215.676</b>	<b>220.777</b>
<b>Lanean ari direnen gainean (‰)</b> Sobre personal ocupado (‰)	7,8	9,2	9,6	9,9	10,6	11,7
<b>Emakumezkoen (%) / Mujeres (%)</b>		37,8	38,2	38,9	39,1	
<b>Ikerlariak / Investigadores</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>76.670</b>	<b>109.720</b>	<b>115.798</b>	<b>122.624</b>	<b>130.986</b>	<b>133.803</b>
<b>I+G-ko langileen gainean (%)</b> Sobre personal I+D (%)	63,6	62,8	61,3	61,0	60,7	60,6
<b>Lanean ari direnen gainean (‰)</b> Sobre personal ocupado (‰)	4,9	5,8	5,9	6,0	6,5	7,1
<b>Emakumezkoen (%) / Mujeres (%)</b>		37,7	37,5	37,9	38,2	
<b>EB-27 / UE-27</b>						
<b>Langileak (AOB) / Personal (EDP)</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>1.996.852</b>	<b>2.192.045</b>	<b>2.285.852</b>	<b>2.363.460</b>	<b>2.471.292</b>	<b>2.554.862</b>
23. taulan jasota dago UPV/EHUren ekoizpen zientifikoaren bilakaera azken hamarkadan. 2000 eta 2009. urteen artean, argitalpen indexatuen kopurua nabarmen handitu da eta horrek esan nahi du ikerketak berebiziko garrantzia hartu duela langileriak garatzen dituen jardueri dagokienez. Jakintza arloka aztertuta, gehien ekoizten dituzten arloak zientzia esperimental, zientzia tekniko eta osasun zientzienak ditugu (% 88). Hala ere, Gizarte zientzia, Zuzenbide zientzia eta Giza zientziei lotutako argitalpenek izan dute hazkunderik handiena azken urteotan.

Publicaciones científicas(\*) indexadas de la UPV/EHU

UPV/EHUren indexatutako argitalpen zientifikoak (\*)

	Zientziak esperimentalak, teknikoak eta osasun-arlokoak CC. Experimentales, técnicas y salud	Gizarte zientziak zuzenbide zientziak eta giza zientziak CC. Sociales, jurídicas y humanidades	Guztira / Total
2000	626	53	679
2001	742	34	776
2002	670	39	709
2003	778	52	830
2004	824	55	879
2005	970	57	1.027
2006	1.069	77	1.146
2007	1.227	118	1.345
2008	1.367	219	1.586
2009	1.375	188	1.563

(\*) Argitalpen zientifikoak ondokoetan jasota daude: Science Citation Index eta Social Science Citation Index. Publicaciones científicas registradas en Science Citation Index y en Social Science Citation Index.

Iturria: UPV/EHU (2010): Euskal Herriko Unibertsitatea zenbakitan 2009-2010. Fuente: UPV/EHU (2010): La Universidad del País Vasco en cifras 2009-2010.



## 6. PANEL DE INDICADORES DE INNOVACIÓN. ÍNDICE EUROPEO DE INNOVACIÓN

Siguiendo la metodología del Manual de Oslo de la OCDE, la oficina estadística de la UE, EUROSTAT, inició una serie de estudios con el fin de recoger datos sobre innovación en los estados miembros, presentando para ello una propuesta de Decisión del Consejo sobre estadísticas de I+D e innovación que fue aprobada en enero de 1994. Dichos estudios concluyeron en 1993 en un proyecto de Encuesta Comunitaria de Innovación (Community Innovation Survey, CIS). En esta línea, y con el objetivo de clasificar los países de la UE-27 midiendo sus resultados de innovación, la Dirección General de Investigación de la Comisión Europea elaboró, junto con la European Trend Chart on Innovation, el Cuadro de Indicadores de la Innovación (Innovation Union Scoreboard, IUS). En el año 2007, se creó el Índice Sintético de Innovación Europea que, posteriormente, se ha ido revisando periódicamente, siendo un indicador útil para evaluar y comparar la situación y rendimiento de los sistemas de innovación. En la actualidad, el Índice Europeo de Innovación se calcula con los 27 países miembros de la UE más Croacia, Serbia, Turquía, Islandia, Noruega y Suiza. Está estructurado en tres bloques principales que desarrollan siete dimensiones de innovación diferentes:

- El bloque de «Habilitadores» de innovación incluye las dimensiones de «Recursos Humanos», «Apertura, excelencia y atractivo del sistema de investigación» y «Financiación y apoyo».
- El bloque de «Actividades de empresa» tiene 3 dimensiones, «Inversiones de empresa», «Vínculos e iniciativa empresarial» y «Rendimientos».
- El bloque de «Outputs» cuenta con dos dimensiones, la de «Innovadores» y «Efectos económicos».

Para cada uno de los bloques y dimensiones, así como para el índice general, se calcula un indicador sintético cuyo valor oscila entre 0 y 1, utilizando la misma metodología para todos los países y el mismo año de análisis.

## 6. BERRIKUNTZA ADIERAZLEEN PANELA. EUROPAKO BERRIKUNTZA ADIERAZLEA

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) Osloko Eskuliburuari jarraiki, EBren estatistikaren bulegoa, EUROSTAT, lanean hasi zen estatu kideetako berrikuntzari buruzko datuak jasotzearen; horretarako, I+G jardueren estatistikei buruzko Kontseiluaren Erabaki baten proposamena aurkeztu zuen eta erabakia 1994ko urtarrilean hartu zen. Hasierako azterlanak Erkidegoko Berrikuntza Inkesta (Community Innovation Survey, CIS) bilakatu ziren 1993an. Ildo horretan, EB-27 osatzen duten herrialdeak berrikuntzari buruzko emaitzen arabera sailkatzeko helburuz, Europako Batzordearen Ikerkuntzaren Zuzendaritza Nagusiak. European Trend Chart on Innovation erakundearekin lankidetzan, Berrikuntzari buruzko Adierazleen Taula (Innovation Union Scoreboard, IUS) gertatu zuen. Gero, 2007. urtean, Europako Berrikuntzaren Indize Sintetikoa sortu zen eta indize hori aldi behin berrikusten da. Agerian geratu da aipatutako indizea baleko adierazlea dela berrikuntza sistemen egoera eta eraginkortasuna ebaluatu eta alderatzeko. Gaur egun, Europako Berrikuntzaren Indizea EB osatzen duten 27 herrialdeak kontuan hartuta eta, gainera, Kroazia, Serbia, Turkia, Islandia, Norvegia eta Suitzako balioak eransten zaizkio emaitzari. 3 atal nagusitan egituratzen da eta guztira zazpi berrikuntza maila garatzen ditu.

- Berrikuntzako «Bideratzaileen» arloak ondoko mailak dauzka: «Giza Baliabideak», «Zabalkundea, bikaintasuna eta ikerbidearen erakargarritasuna» eta «Finantzabidea eta laguntza».
- «Enpresa jarduerak» izeneko arloak hiru maila dauzka: «Enpresa inbertsioak», «Enpresa ekimena eta loturak» eta «Etekinak».
- «Output-ak» deritzen arloak bi maila dauzka: «Berritzaileak» eta «Ondorio ekonomikoak».

Atal eta maila bakoitzeko, bai eta indize orokorra ateratzeko, 0 eta 1 arteko balioa daukan adierazlea kalkulatu da. Hala, metodologia berdina erabiltzen da herrialde guztietan eta urte berean egiten da azterketa.

	Euskal AE C.A. de Euskadi	España España	EB-27 UE-27
<b>GUZTIZKO INDIZEA / INDICE GLOBAL</b>	<b>0,45</b>	<b>0,39</b>	<b>0,52</b>
<b>BIDERATZAILEAK / HABILITADORES</b>	<b>0,50</b>	<b>0,49</b>	<b>0,57</b>
<b>Giza Baliabideak / Recursos Humanos</b>	<b>0,57</b>	<b>0,41</b>	<b>0,54</b>
<b>Graduatu berriak, doktoreak (25-34 urtekoen %)</b> Nuevos graduados doctores (% grupo 25-34 años)	0,93	0,90	1,40
<b>Hirugarren mailako hezkuntza daukan biztanleria (30-34 urtekoen %)</b> Población con educación terciaria (% grupo 30-34 años)	41,00	39,40	32,30
<b>Gutxienez bigarren mailako hezkuntza amaitu duen biztanleria (20-24 urtekoen %)</b> Población que ha completado al menos la educación secundaria (% grupo 20-24 años)	78,30	59,90	78,60
<b>Zabalkundea, bikaintasuna eta ikerbidearen erakargarritasuna</b> Apertura, excelencia y atractivo del sistema de investigación	<b>0,53</b>	<b>0,55</b>	<b>0,55</b>
<b>Nazioarteko argitalpen zientifikoak milioi bat biztanleko</b> Copublicaciones científicas internacionales por millón habitantes	428,12	440,05	266,06
<b>Argitalpen zientifikoak, nazioartean gehien aipatzen diren argitalpenen artean (top10) (guztizko argitalpenen %)</b> Publicaciones científicas entre las publicaciones top-10% más citadas internacionalmente (% del total publicaciones)	8,84	9,52	10,87
<b>EBtik kanpoko doktoreak (herrialdeko guztizko doktoreen %)</b> Doctores de fuera de la UE (% total doctores del país)	16,93	16,78	19,45
<b>Finantza bidea eta laguntza / Financiación y apoyo</b>	<b>0,34</b>	<b>0,52</b>	<b>0,63</b>
<b>I+G jardueren ziozko gastu publikoa (BPGren %)</b> Gasto público en I+D (% PIB)	0,47	0,67	0,75
<b>Arrisku-kapitala (BPGren %)</b> Capital-riesgo (% PIB)	0,05	0,07	0,11
<b>ENPRESA JARDUERAK / ACTIVIDADES DE EMPRESA</b>	<b>0,40</b>	<b>0,27</b>	<b>0,46</b>
<b>Enpresa inbertsioak / Inversiones de empresa</b>	<b>0,50</b>	<b>0,26</b>	<b>0,46</b>
<b>I+G jardueren ziozko gastu pribatua (BPGren %)</b> Gasto Privado en I+D (% PIB)	1,51	0,72	1,25
<b>Berrikuntza gastua (ez I+G)</b> Gasto en innovación (no de I+D)	0,64	0,46	0,71
<b>Enpresa ekimena eta loturak / Vínculos e iniciativa empresarial</b>	<b>0,43</b>	<b>0,18</b>	<b>0,41</b>
<b>Barruko berrikuntza duten ETEak (ETEen %)</b> Pymes con innovación interna (% de Pymes)	29,64	22,06	30,31
<b>Beste ETE batzuekin lankidetzan diharduten ETEak (ETEen %)</b> Pymes innovadoras que colaboran con otras (% de Pymes)	9,63	5,34	11,16
<b>Argitalpen publiko eta pribatuak milioi bat biztanleko</b> Co-publicaciones públicas-privadas por millón de habitantes		15,86	36,17
<b>Adimen aktiboak / Activos intelectuales</b>	<b>0,31</b>	<b>0,35</b>	<b>0,50</b>
<b>PCT patenteen eskaera, BGPren bilioi bakoitzeko</b> Solicitud de patentes PCT por billón de PIB	1,14	1,28	4,00
<b>Merkataritza markak, BGPren bilioi bakoitzeko</b> Marcas comerciales por billón de PIB	5,49	6,17	5,41
<b>Diseinuak, BGPren bilioi bakoitzeko / Diseños por billón de PIB</b>	3,21	3,37	4,75
<b>OUTPUTak / OUTPUTS</b>	<b>0,44</b>	<b>0,45</b>	<b>0,53</b>
<b>Berritzaileak / Innovadores</b>	<b>0,40</b>	<b>0,33</b>	<b>0,50</b>
<b>ETE berritzaileak, produktu edo prozeduretan (ETEen %)</b> Pymes innovadoras en producto o proceso (% de Pymes)	35,50	27,50	34,18
<b>ETE berritzaileak, marketin edo antolakuntzan (ETEen %)</b> Pymes innovadoras en marketing u organización (% de Pymes)	27,26	30,35	39,09

.../...

	Euskal AE C.A. de Euskadi	España España	EB-27 UE-27
<b>Ondorio ekonomikoak / Efectos económicos</b>	<b>0,45</b>	<b>0,50</b>	<b>0,54</b>
<b>Enplegua jakintza jarduera intentsiboetan (Enpleguaren %)</b> Empleo en actividades intensivas en conocimiento (% empleo)	12,20	11,34	13,03
<b>Goi eta erdi mailako teknologiaren esportazioa (guztizko esportazioen %)</b> Exportaciones de tecnología media y alta (% total de exportaciones)	53,19	–	–
<b>Goi mailako jakintzazko zerbitzuen esportazioak (guztizko zerbitzu esportazioen %)</b> Exportaciones de servicios de alto nivel de conocimiento (% total exportaciones de servicios)	45,14	–	49,43
<b>Merkatuko produktu berrien salmenta (negozio bolumenaren %)</b> Ventas de productos nuevos para el mercado (% cifra de negocio)	8,08	15,91	13,26
<b>Lizentzia eta patenteen ziozko atzerriko sarrerak (BPGren %)</b> Ingresos del extranjero por licencias y patentes (% de PIB)	0,15	0,07	0,21

Iturria: Eustat. Berrikuntza Adierazleen Panela. (IUS).

Fuente: Eustat. Panel de Indicadores de Innovación (IUS).

Pues bien, basándonos en los datos del Panel de Indicadores de Innovación, se puede concluir que la C.A. de Euskadi presenta unos índices de innovación superior a la media española, aunque todavía inferior a la europea (0,45, 0,39 y 0,52, respectivamente). No obstante, el análisis detallado de los valores de las distintas variables revela la mejor posición de la C.A. de Euskadi tanto respecto a la UE-27 como a la media española en tres dimensiones: «Recursos Humanos», «Inversiones de empresas» y «Vínculos e iniciativa empresarial». En el resto, los valores están por debajo de la media europea, pero en todos los casos superiores a la española.

- La dimensión de **recursos humanos** mide la disponibilidad de fuerza de trabajo altamente cualificada y educada. Si bien el indicador muestra un valor más positivo en la C.A. de Euskadi que en la UE-27, 0,57 y 0,54, respectivamente, parece conveniente analizar con más detalle los distintos indicadores. En este sentido podemos señalar que el 0,93 por mil de jóvenes se han graduado doctores frente a la tasa europea del 1,40 por mil. Si bien los restantes indicadores que completan esta dimensión presenta valores mucho más cercanos a la media europea. En concreto, el porcentaje de jóvenes de 20-24 años que han superado como mínimo la educación secundaria superior es, prácticamente, similar a la media europea (78,3% frente al 78,60%), mientras que el porcentaje de población de 30-34 años con educación terciaria es incluso superior en la C.A. de Euskadi, un 41,0% frente al 32,3%.
- La dimensión **Inversiones de empresas** (0,50 en la C.A. de Euskadi frente al 0,48 en la UE-27), incluye dos indicadores, tanto de inversión de I+D como de no de I+D. En el primer caso, el gasto privado en I+D como porcentaje del PIB en la C.A. de Euskadi es del 1,51% frente al 1,25% en la UE-27 y del 0,72% respecto de la media española. Sin embargo, en la segunda variable considerada el dato obtenido es ligeramente inferior al europeo, pero muy superior a la media española.
- La dimensión **Vínculos e iniciativa empresarial** tiene en cuenta los esfuerzos empresariales y de colaboración entre empresas innovadoras y también con el sector público. La valoración global del indicador refleja un valor algo mayor en la C.A. de Euskadi respecto de la media de la UE-27, 0,43 y 0,41, respectivamente. Es en el primer indicador, esto es, el porcentaje de Pymes con innovación interna

Bada, Berrikuntza Adierazleen Taulan oinarrituta, esan dezakegu Euskal AEko berrikuntza indizeak Espainiako batez bestekoak baino handiagoak direla, baina oraindik ere Europako batez bestekoak baino txikiagoak (0,45, 0,39 eta 0,52, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, aldagai guztien balioen azterketa zehatza eginez gero, argi dago Euskal AE EB-27 edo Espainiako batez bestekoa baino egoera hobean dagoela hiru mailari dagokienez: «Giza Baliabideak», «Enpresa inbertsioak» eta «Enpresa ekimenak eta loturak». Gainerako mailatan, balio guztiak Europako batez besteko emaitzak baino txikiagoak dira, baina betiere Espainiako batez besteko emaitzak baino handiagoak.

- **Giza baliabideen arloak** kualifikazio handiko eta prestakuntza bikaineko lanindarraren erabilgarritasuna neurtzen du. Emaitzei erreparatuta, Euskal AEko adierazlearen balioak EB-27koei gailentzen zaizkie, 0,57 eta 0,54, hurrenez hurren, baina komeni da gainerako adierazleak sakonago aztertzea. Ildo horretan, nabarmendu dezakegu mila gazte bakoitzeko 0,93 doktore graduatu direla; Europako tasa, berriz, milako 1,40 dugu. Nolanahi ere, arlo hori osatzen duten gainerako adierazleen balioa Europako batez bestekoaren balioetik oso hurbil dago. Hain zuzen ere, gutxienez goi-mailako bigarren hezkuntza egin duten 20-24 urteko gazteen ehunekoa, ia-ia Europako batez bestekoaren berdina da (% 78,3 eta % 78,60). Bestalde, hirugarren mailako ikasketak amaituta dituzten 30-34 urteko biztanleen ehunekoa handiagoa da Euskal AEn, hots, % 41,0 % 32,3ren aldean.
- **Enpresa inbertsioak** izeneko mailak (0,50 Euskal AEn eta 0,48 EB-27n), bi adierazle dakartza, lehenengoa I+G jardueren ziozko inbertsioa, eta I+Gz kanpoko jardueren ziozkoa. Lehenengoari dagokionez, I+G jardueren ziozko gastu pribatua, BPGren ehuneko gisa emanda, % 1,51koa da Euskal AEn, % 1,25ekoa EB-27n eta % 0,72koa, batez beste, Espainian Hala ere, aztertutako bigarren adierazlearen balioa Europakoa baino zerbait txikiagoa da eta Espainiako batez bestekoa baino askoz ere handiagoa.
- **Enpresa ekimena eta loturak** izeneko mailak enpresa berriazaleen arteko ahaleginak eta lankidetzak saioak kontuan hartzen ditu, bai eta sektore publikoarekin garatutakoak ere. Adierazlearen orotariko balorazioak emandako balioa zerbait handiagoa da Euskal AEn EB-27 osatzen duten herrialdeen batez besteko balioa baino, 0,43 eta 0,41, hurrenez hurren. Lehenengo adierazleari gagozkiola, hau da, barru-

donde los valores que muestra la media de la UE-27 y la de la C.A. de Euskadi tienen mayor similitud, un 30,31% frente al 29,64% respectivamente, mientras que en el porcentaje de Pymes innovadoras que colaboran con otras la diferencia entre ambas cifras es mayor (un 11,6% en la UE-27 frente al 9,63% en la C.A. de Euskadi).

- Aunque en el resto de dimensiones la puntuación conseguida es inferior a la media europea, se pueden mencionar varios indicadores donde la C.A. de Euskadi obtiene resultados mejores que los de la UE. En concreto nos referimos a la solicitud de patentes PCT (Patent Cooperation Treaty) por billón de PIB y el porcentaje de Pymes innovadoras en producto o proceso.

En el lado menos positivo podríamos destacar el dato obtenido en la dimensión **Efectos económicos** que recoge el éxito económico de la innovación en el empleo, en las exportaciones y en las ventas debido a actividades de innovación. A este respecto, el porcentaje de empleo en actividades intensivas en conocimiento es en la C.A. de Euskadi del 12,2% frente al 13,03% de la UE. El porcentaje de servicios de alto nivel de conocimiento es del 45,14% frente al 49,43%. En la misma línea las ventas de productos nuevos para el mercado como porcentaje de negocio e ingresos del extranjero por licencias y patentes como porcentaje del PIB, muestran valores en la C.A. de Euskadi sustancialmente más bajos, especialmente en el primero.

ko berrikuntza lantzen duten ETEen ehunekoari, EB-27ko batez besteko balioa eta Euskal AEko balioa oso antzekoak dira, hots, % 30,31 eta % 29,64, hurrenez hurren. Beste ETE batzuekin lankidetzan aritzen diren ETE berritzaileetan, balioen arteko aldea handiagoa da (% 11,6 EB-27n eta % 9,63 Euskal AEn).

- Gainerako mailetan Euskal AEko balioak Europako batez bestekoak baino txikiagoak, baina EAEko balioak EBko balioei gailentzen zaizkien adierazle batzuk aipa ditzakegu. Hain zuzen ere, BPGren bilioi bakoitzeko PCT (Patent Cooperation Treaty) patenteen eskaeraz eta produktua edo prozesua berritu duten ETE berritzaileen ehunekoaz ari gara.

Esan genezake emaitzarik txarrean **Ondorio ekonomikoak** atalean ateratako balioa dela, berrikuntza jardueren zioz, berrikuntzaren arrakasta ekonomikoa enpleguan, esportazioetan eta salmentetan neurtzen duenekoan. Ildo horretan, jakintza jarduera intentsiboetan dagoen enpleguaren ehunekoa % 12,2koa da Euskal AEn eta % 13,03koa EBn. Goi mailako jakintzazko zerbitzuen ehunekoa % 45,14koa da, % 49,43koaren aldean. Ildo beretik, merkaturako produktu berrien salmentaren balioak, negozio bolumenaren gainean, eta lizentzia eta patenteen ziozko atzerriko diru-sarreretak, BPGren ehunekoaren aldean, nahikoa txikiak dira Euskal AEn, batik bat lehenengo balioari dagokionez

## 7. CONCLUSIONES

Tanto en lo que se refiere al gasto como a los recursos humanos dedicados a actividades de I+D, el posicionamiento de la C.A. de Euskadi es positivo, presentando un nivel relativo superior al promedio español.

La estructura de gasto en I+D por parte de los principales agentes del sistema (empresas, Administración pública y Universidad) pone de manifiesto el importante papel desempeñado por el sector empresarial. La intensidad de I+D empresarial está considerada la más importante de España, e incluso es superior a la de países europeos líderes en la realización de actividades de I+D. Las empresas son asimismo la principal fuente de financiación de las actividades de I+D en la C.A. de Euskadi. Su aportación en términos relativos, si bien ha retrocedido respecto a años anteriores, continúa siendo superior a la registrada en España y en la UE-27. Por otro lado, la mayoría de los recursos (financieros y humanos) destinados a investigación van dirigidos al campo de la ingeniería y tecnología. Sin embargo, el área de las ciencias sociales y humanidades, aunque minoritaria, es la que ha registrado un mayor crecimiento en los últimos cinco años.

Respecto al comportamiento de los Territorios Históricos, cabe señalar que casi la mitad de los gastos de I+D de la C.A. de Euskadi se concentran en Bizkaia; sin embargo, es en Gipuzkoa donde se realiza el mayor esfuerzo investigador. A su vez, Gipuzkoa destaca por la fortaleza del sector empresarial, mientras que Bizkaia es el territorio en el que tiene mayor peso el sector universitario y en Álava la Administración Pública.

En relación con las actividades de I+D realizadas por el sector empresarial, destacar que se financian principalmente con fondos de la propia empresa. Entre las fuentes de financiación ajenas destacan las Administraciones públicas (central, autonómica y local). Por sectores productivos, la mitad de las empresas que realizan estas actividades pertenecen al sector industrial; sin embargo, son las empresas del sector servicios las que concentran la mayor proporción del gasto interno de I+D y del empleo. Asimismo, el sistema de innovación vasco se caracteriza por el escaso peso que tienen en las actividades de I+D los sectores manufactureros de tecnología alta y, por el contrario, el elevado peso de las manufacturas de tecnología media (medio-alta y medio-baja).

Una de las características del sistema de innovación de la C.A. de Euskadi es la importante red de centros tecnológicos que posee. El gasto en actividades de I+D de los centros tecnológicos supone el 15% del gasto de la comunidad autónoma. Los fondos que financian las actividades de investigación de los centros tecnológicos tienen su origen principalmente en el sector empresarial y en la Administración pública. No obstante, los fondos procedentes del extranjero tienen un peso mayor que en los otros agentes de innovación. En los últimos años, los centros tecnológicos han experimentado un importante proceso de consolidación y agrupamiento con la constitución de la corporación Tecnalia y de la alianza IK-4.

Las universidades junto a los organismos de investigación dependientes de la Administración pública forman el núcleo básico del sistema de investigación científica del sistema vasco de innovación. Sin embargo, estos sectores presentan una debilidad notable si se considera que el nivel de gasto que ejecutan es inferior al 24% del gasto total de I+D de la

## 7. ONDORIOAK

I+G jardueretan egindako gastua eta haiei eskainitako giza baliabideei dagokienez, Euskal AERen egoera ona da, Espainiako batez bestekoa baino hobea.

Sisteman jarduten duten eragile nagusiek (enpresak, herri administrazioa eta unibertsitatea) I+G jardueretan egindako gastua aztertzen badugu, ohartu gara enpresak berebiziko garrantzia daukala esparru honetan. Gure inguruko enpresen I+G jarduera garrantzitsuentzat hartzen da Espainian eta, gainera, I+G jarduerak garatzen aurrendariak diren Europako herrialde batzuetako jarduera baino handiagoa da. Era berean, I+G jarduerak finantzatzeko iturririk behinenak enpresak ditugu Euskal AEn. Oro har hartuta, enpresen ekarpena Espainiakoa eta EB-27koa baino handiagoa da —nahiz eta zerbait atzera egin duen aurreko urteetako ekarpenarekin alderatuta—. Beste alde batetik, ikerkuntzan erabiltzen diren baliabide gehienak (finantza- baliabideak nahiz giza baliabideak) ingeniartzan eta teknologian baliatzen dira. Hala ere, Gizarte eta Giza Zientzien arloak izan du hazkunderik handiena azken bost urteotan, horren pisu erlatiboa oso txikia izan arren.

Lurralde historikoetako egoerari gagozkiola, aipatu behar dugu Euskal AEko I+G jardueren ziozko gastuen ia erdia Bizkaian egiten dela; hala ere, Gipuzkoan egiten da ikertzeko ahaleginik handiena. Bestetik, enpresen sektorea Gipuzkoan dabil sendoen; Bizkaian, berriz, unibertsitateak dauka garrantzirik handiena eta Araban herri administrazioak.

Enpresek gauzatutako I+G jardueren dagokienez, esan behar da jarduerok, batik bat, enpresaren beraren funtsei esker finantzatzen direla. Kanpoko finantzabideei dagokienez, herri administrazioen (estatukoa, autonomia erkidegokoa eta tokikoa) ekarpena nabarmendu behar dugu. Ekoizpen sektoreak direla eta, I+G jarduerak garatzen dituzten enpresen erdia industriakoak dira; hala ere, zerbitzuen sektoreko enpresek metatzen dute I+G jardueren ziozko barruko gastuaren eta lanaren proportzio handiena. Hala berean, euskal berrikuntza sistemaren baitan, goi-teknologiako manufaktura sektorearen garrantzia oso txikia da I+G jardueretan; maila ertaineko (ertain-goikoa eta ertain-behekoa) manufaktura sektorearen garrantzia, aldiz, oso handia da.

Euskal AEko berrikuntza sistemaren ezaugarri nagusietakoa dugu zentro teknologikoen sare sendoa. Zentro teknologikoen I+G jardueretan egindako gastua autonomia erkidegoko gastuaren % 15 da. Zentro teknologikoen ikerketa jarduerak finantzatzeko funtsen iturria, batik bat, enpresa eta herri administrazioa dira. Hala ere, atzerritik datozen funtsek gainerako berrikuntza eragileenek baino garrantzia handiagoa daukate. Azken urteotan, zentro teknologikoak sendo finkatu eta saretu dira Tecnalia korporazioaren eta IK-4 aliantzaren eraketari esker.

Unibertsitateak eta herri administrazioaren menpeko ikerketa erakundeak ditugu euskal berrikuntza sistemaren ikerketa zientifikoaren sareko ardatzak. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago sektore horien jarduera oso ahula dela, horien artean gauzatzen duten gastua Euskal AEn guztira gauzatzen den gastuaren % 24 baino txikiagoa baita, hots, Espainiakoa-

C.A. de Euskadi, participación inferior a la media española y europea. Sin embargo, destacan sobre el sector empresarial con relación al número de investigadores que emplean: en las universidades vascas, el 85% de los empleados en EDP son investigadores, cifra que se reduce al 56% en los organismos de investigación dependientes de la Administración. Con relación al campo de investigación al que van dirigidos los recursos (financieros y humanos), señalar que casi un tercio de los recursos universitarios se destina al campo de las ciencias exactas y naturales, mientras que en los organismos públicos de investigación, el principal campo de investigación es el de las ciencias médicas, lo que está relacionado con la importancia que tiene el sector sanitario entre los organismos públicos de investigación vascos.

La política de I+D+i de la C.A. de Euskadi ha sido llevada a cabo a través de sucesivos planes que han determinado su evolución. Desde una fase inicial de «política de oferta», destinada principalmente a la construcción de un stock de capital tecnológico y organizacional, se pasó por un estadio intermedio de «política de oferta y demanda combinadas», hasta alcanzar la fase actual centrada en una «política de orientación a resultados».

Con el objetivo de reunir los esfuerzos de los organismos públicos y privados encargados de impulsar el conocimiento científico, la tecnología y la innovación de la C.A. de Euskadi, se creó la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI), formada entre otros agentes por centros tecnológicos, universidades, centros públicos de investigación, unidades de I+D de las empresas, parques tecnológicos, etc. Asimismo, el sistema vasco de innovación se ha dotado de organizaciones como la Agencia Vasca de Innovación (Innobasque) y la Fundación Vasca de Ciencia (Ikerbasque). No obstante, para complementar las redes internas es precisa una mayor integración en redes internacionales.

En la actualidad, el desarrollo de la excelencia y de los grupos de investigación universitarios ha progresado considerablemente, al igual que la actividad de transferencia tecnológica, por lo que la Universidad se encuentra en posición de liderar en el futuro los cambios necesarios para desarrollar plenamente el potencial científico del sistema vasco de innovación, adquiriendo ventajas competitivas que le permitan participar en el Espacio Europeo de Investigación.

Por otro lado, en la C.A. de Euskadi el nivel de cooperación entre los agentes innovadores no ha alcanzado un nivel de desarrollo adecuado. Una de las principales debilidades del sistema es que las interrelaciones entre las empresas y las infraestructuras tecnológicas (Centros tecnológicos y CICs) y científicas (Universidad y BERC) no llegan a tener la densidad que sería deseable para generalizar los comportamientos innovadores al conjunto de las empresas vascas (PCTI 2010). Asimismo, son escasas las relaciones de la Universidad con los centros tecnológicos, a diferencia de lo que sucede en otros países. El aumento de las relaciones será un factor crítico en la mejora del entorno innovador de las empresas y de los propios centros de enseñanza superior. Pero, además, las instituciones que han ido surgiendo para apoyar a las empresas deben funcionar de manera coordinada y aprovechar sus sinergias para generar conocimiento. Es necesario, por tanto, potenciar las interrelaciones y cooperaciones entre todos los agentes del sistema.

ren eta Europakoaren batez bestekoa baino txikiagoa. Nolanahi ere, nabarmenak dira enpresaren sektorearen aldean aurrekoetan lan egiten duten ikertzaileen kopuruagatik: euskal unibertsitateetan, langileen % 85 (AOB) ikertzaileak dira. Ehuneko hori, baina 56koa da herri administrazioaren menpeko ikerketa erakundeetan. Baliabideak (finantza arlokoak eta giza baliabideak) zein ikerketa arlotan erabiltzen diren aztertuta, aipatu behar dugu unibertsitateko baliabideen ia heren bat zientzia zehatz eta natur zientzietan baliatzen dela; ikerketa erakunde publikoetan, ordea, ikerketa arlo nagusia medikuntza zientzietakoa dugu, jakina denez, osasunaren sektoreak berebiziko garrantzia daukalako euskal ikerketa erakunde publikoentzat.

Euskal AEko I+G+b politika ondoz ondoko planen bitartez garatu da eta plan horiek, azken batean, bideratu dute berrikuntza politikaren bilakaera. Hasieran, «eskaintza politika» nagusi zen, batez ere, teknologia eta erakunde kapitalaren oinarria eratzeko. Gero, «eskaintza eta eskari politika» landu zen eta gaur egun «emaitzak lortzeko politika» erabiltzen da.

Euskal AEko jakintza zientifikoa, teknologia eta berrikuntza sustatzen duten erakunde publiko eta pribatuen ahaleginak batzeko helburuz, Euskal Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sarea (EZTBS) eratu zen. Sare horretan, besteak beste, zentro teknologiko, unibertsitate, ikerketa erakunde publiko, enpresetako I+G unitate, parke teknologiko eta abarretako eragileek parte hartzen dute. Era berean, euskal berrikuntzaren sistema hainbat erakundez osatu da, hala nola, Berrikuntzaren Euskal Agentzia (Innobasque) eta Euskal Zientziaren Fundazioa (Ikerbasque). Guztiaz ere, barruko sareak osatzeko xedez, nazioarteko sareetan ere parte hartu behar da.

Gaur egun, bikaintasuna eta unibertsitateko ikerketa taldeak izugarri garatu dira, baita teknologiaren transferentzia ere; hori dela eta, unibertsitateak liderrarena egin dezake etorkizunean berrikuntzaren euskal sistema oso-osorik garatzeko egin behar diren aldaketak gauzatzeko bidean, lehiatzeko abantailak eskuratuz eta, horrela, Europako Ikerketa Eremuan parte hartu ahal izateko.

Beste alde batetik, berrikuntzan diharduten eragileen arteko lankidetzak ez du garapen maila egokirik lortu Euskal AEn. Sistemaren ahulgune behinenetakoa hauxe dugu: enpresen eta azpiegitura teknologikoen (zentro teknologikoak eta IKZak) eta zientifikoen (unibertsitatea eta OIBZak) arteko harremanak ez dira behar bezain sendoak jokabide berritzaileak euskal enpresa guztietara hedatu ahal izateko (ZTBP 2010). Gainera, unibertsitatearen eta beste zentro teknologiko batzuen arteko harremanak ere eskasak dira, beste herrialde batzuetan gertatu ez bezala. Harremanak lantzea giltzarria izango da enpresen berrikuntza esparrua eta goi-mailako irakaskuntza eskaintzen duten erakundeena hobetu nahi badugu. Horrez gain, enpresei laguntzeko eratu diren antolakundeek koordinaturik lan egin behar dute eta sinergiak baliatu jakintza lortzeko. Beraz, behar-beharrezkoa da sistemako eragile guztien arteko harremanak eta lankidetzak indartzea.

## BIBLIOGRAFÍA

- BARGE, A.; SANTAMARIA, L. y MODREGO, A. (2011). «Complementarities Between Universities and Technology Institutes: New Empirical Lessons and Perspectives», *European Planning Studies*, vol. 19, núm.2, 195-215.
- BUESA (2001). *Los sistemas regionales de innovación del País Vasco y Navarra*, Documento de trabajo, nº 28, Instituto de Análisis Industrial y Financiero, Universidad Complutense de Madrid.
- COTEC (2011). *Tecnología e Innovación en España. Informe Cotec 2011*, Fundación Cotec para la innovación tecnológica, Madrid, España.
- EDQUIST, C. (1997). *Systems of Innovation. Technologies, Institutions and Organizations*. London and Washington. Pinter.
- GOBIERNO VASCO (2001). *Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2001-2004*, Vitoria-Gasteiz, España.
- (2006). *Plan de Competitividad Empresarial e innovación Social 2006-2009*, Vitoria-Gasteiz, España.
- (2007). *Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2010*, Vitoria-Gasteiz, España.
- (2010). *Plan de Competitividad Empresarial 2010-13*, Vitoria-Gasteiz, España.
- IKERBASQUE (2011). *Informe sobre la Ciencia en Euskadi. Informe 2010*. Departamento de Educación del Gobierno Vasco. [[http://www.ikerbasque.net/images/stories/2010\\_informe\\_ciencia\\_euskadi.pdf](http://www.ikerbasque.net/images/stories/2010_informe_ciencia_euskadi.pdf)]
- INNOBASQUE (2011). *Estudios de la OCDE sobre innovación regional. País Vasco, España*, Bizkaia, España. (Publicado por la OCDE en inglés con el título: *OECD Review of Regional Innovation: Basque Country, Spain*, 2011).
- LÓPEZ-RODRIGUEZ, J.; FAIÑA, A. y MANSO, G. (2010). «Sistemas de innovación regionales: el caso del País Vasco», *Revista Galega de Economía*, vol. 19, núm. extraordinario.
- LUDVALL, B. A. (1992). *National Systems of Innovation: Toward a Theory of Innovation and Interactive Learning*. London: Pinter.
- NAVARRO y BUESA (2003). *Sistema de Innovación y Competitividad en el País Vasco*, Euskal Ikaskuntza, Gipuzkoa, España.
- OCDE (2005). *Oslo Manual. Guidelines for collecting and interpreting innovation data*, Third edition.
- OLAZARAN, M. y OTERO, B. (2007). *Ciencia y Tecnología. Informe Socioeconómico de la C.A. de Euskadi*, Capítulo 12, Eustat, Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, España.
- OLAZARAN, M.; ALBIZU, E. y OTERO, B. (2009). «Technology Transfer between Technology Centres and SMEs: Evidence from the Basque Country». *European Planning Studies*, 17:3,345-363.
- ORKESTRA (2009). *II Informe de Competitividad del País Vasco: hacia el estadio competitivo de la innovación*, Instituto Vasco de Competitividad, Fundación Deusto, Donostia/San Sebastián, España.
- RICO-CASTRO, P. (2005). *Policy-making and organisational shaping: the role of Basque technology policy in building an environment for Technological Centres*. Documentos de trabajo del CSIC. Unidad de Políticas Comparadas, Nº. 11.
- SCIMAGO RESEAH GROUP (2010). *Investigación científica con visibilidad internacional de Euskadi. Scopus, 2003-2008*. Observatorio Vasco de Ciencia y Tecnología, Ikerbasque. [<http://www.ikerbasque.net/ikerboost/>].
- UPV/EHU (2010). *La Universidad del País Vasco en cifras, 2009/2010*, Universidad del país Vasco. [[http://www.ehu.es/p200shstatct/es/contenidos/estadistica/universidad\\_cifras\\_2009\\_2010/es\\_cif\\_2010/universidad\\_cifras.html](http://www.ehu.es/p200shstatct/es/contenidos/estadistica/universidad_cifras_2009_2010/es_cif_2010/universidad_cifras.html)].

## BIBLIOGRAFIA

- BARGE, A.; SANTAMARIA, L. eta MODREGO, A. (2011). «Complementarities Between Universities and Technology Institutes: New Empirical Lessons and Perspectives», *European Planning Studies*, 19. lib, 2 zk., 195-215.
- BUESA (2001). *Los sistemas regionales de innovación del País Vasco y Navarra*, lan-dokumentua 28. zk., Industria eta Finantza Azterketarako Erakundea, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
- COTEC (2011). *Tecnología e Innovación en España. Informe Cotec 2011*, Cotec - Fundación para la innovación tecnológica, Madril, España.
- EDQUIST, C. (1997). *Systems of Innovation. Technologies, Institutions and Organizations*. London and Washington. Pinter.
- EUSKO JAURLARITZA (2001). *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2001-2004*, Vitoria-Gasteiz, Espainia.
- (2006). *Enpresa Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntzarako Plana 2006-2009*, Vitoria-Gasteiz, Espainia.
- (2007). *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2010*, Vitoria-Gasteiz, Espainia.
- (2010). *Enpresa Lehiakortasun Plana 2010-13*, Vitoria-Gasteiz, Espainia.
- IKERBASQUE (2011). *Zientzia Euskadin txostena 2010*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. [[http://www.ikerbasque.net/images/stories/2010\\_informe\\_ciencia\\_euskadi.pdf](http://www.ikerbasque.net/images/stories/2010_informe_ciencia_euskadi.pdf)]
- INNOBASQUE (2011). *ELGAren azterlanak eskualdeko berrikuntzari buruz. Euskadi, Espainia*, Bizkaia, Espainia. (ELGak ingelesez argitaratuta, ondoko izenburuarekin: *OECD Review of Regional Innovation: Basque Country, Spain*, 2011).
- LÓPEZ-RODRIGUEZ, J.; FAIÑA, A. y MANSO, G. (2010). «Sistemas de innovación regionales: el caso del País Vasco», *Revista Galega de Economía*, 19. lib., Aparteko alea.
- LUDVALL, B. A. (1992). *National Systems of Innovation: Toward a Theory of Innovation and Interactive Learning*. London: Pinter.
- NAVARRO eta BUESA (2003). *Sistema de Innovación y Competitividad en el País Vasco*, Eusko Ikaskuntza, Gipuzkoa, Espainia.
- OCDE (2005). *Oslo Manual. Guidelines for collecting and interpreting innovation data*, Third edition.
- OLAZARAN, M. eta OTERO, B. (2007). *Zientzia eta Teknologia. Euskal AEko Memoria Sozioekonomikoa*, 12. kapitulua, Eustat, Eusko Jaurlaritzza, Vitoria-Gasteiz, Espainia.
- OLAZARAN, M.; ALBIZU, E. eta OTERO, B. (2009). «Technology Transfer between Technology Centres and SMEs: Evidence from the Basque Country». *European Planning Studies*, 17:3,345-363.
- ORKESTRA (2009). *II Informe de Competitividad del País Vasco: hacia el estadio competitivo de la innovación*, Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Deustu Fundazioa, Donostia/San Sebastián, Espainia.
- RICO-CASTRO, P. (2005). *Policy-making and organisational shaping: the role of Basque technology policy in building an environment for Technological Centres*. Documentos de trabajo del CSIC. Unidad de Políticas Comparadas, Nº. 11.
- SCIMAGO RESEARCH GROUP (2010). *Investigación científica con visibilidad internacional de Euskadi. Scopus, 2003-2008*. Euskal Zientzia eta Teknologiaren Behatokia, Ikerbasque. [<http://www.ikerbasque.net/ikerboost/>].
- UPV/EHU (2010). *Euskal Herriko Unibertsitatea zenbakitan, 2009/2010*, Euskal Herriko Unibertsitatea. [[http://www.ehu.es/p200shstatct/es/contenidos/estadistica/universidad\\_cifras\\_2009\\_2010/es\\_cif\\_2010/universidad\\_cifras.html](http://www.ehu.es/p200shstatct/es/contenidos/estadistica/universidad_cifras_2009_2010/es_cif_2010/universidad_cifras.html)].